



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

Imanol Zubizarreta Arteche

Resolución 11/2022 ebazpena

Recurso 7/2022 errekurtsua

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria

María Yeregui Hernández

AGISAS - GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILE ETA ANIMATZAILE SOZIO KULTURALEN ELKARTEAK kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri du Gipuzkoa Turismoa HUBaren bidez Gipuzkoako helmuga turistikoa kudeatu eta dinamizatzeko zerbitzu kontratuaren baldintza agirien aurka (A05/22-SE/T espedientea). Bada, errekurtsu berezi hori dela-eta, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, gaurko bileran, goian aipatutako kideak bertan daudela, erabaki hau hartu du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos del contrato de servicios de gestión y dinamización del destino turístico de Gipuzkoa a través del HUB Gipuzkoa Turismoa (expediente A05/22-SE/T), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

LEHENA.- Auzitegi honetako erregistro elektronikoa 2022ko maiatzaren 2an aurkeztutako idazkiaren bidez, AGISAS elkarteak kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen ebazpen honen idazpuruan aipatutako egintzaren aurka.

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 2 de mayo de 2022 AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acto citado en el encabezamiento de esta resolución.

BIGARRENA.- Auzitegiak Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari igorri zion errekurtsua, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedientea eta dagokion txostena eskatu zizkion (maiatzaren 12an jaso ziren).

SEGUNDO.- El Tribunal remitió el recurso al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron el 12 de mayo.

HIRUGARRENA.- Ekainaren 1ean, Auzitegiaren erregistroan sarrera eman zitzaion Diputatuen Kontseiluak maiatzaren 24an hartutako erabakiari, zeinaren bidez atzera egiten baitu kontratazio prozeduran.

TERCERO.- El 1 de junio ha tenido entrada en el registro del Tribunal el acuerdo adoptado el 24 de mayo por el Consejo de Gobierno Foral en virtud del cual se desiste del procedimiento de contratación.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENENGOA.- Xedea.

Errekurtsoa 1.149.864,95 euroko balio zenbatetsia duen zerbitzu kontratu baten baldintza agirien aurka jarri da.

Beraz, egintza horri errekurso berezia jar dakiok kontratazio arloan, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua 1.a) eta 2.a) zatietan.

BIGARRENA.- Eskumena.

Errekurto horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, kontratazio alorreko errekurtoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

HIRUGARRENA.- Epea.

Errekurtsoa SPKLren 50.1.b) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia apirilaren 6an argitaratu zela Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman.

LAUGARRENA.- Legitimazioa.

Errekurtsogilea errekurtsua jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 48. artikuluan, eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan, aurkaratzen duen agirien kontratuaren xedearekin zerikusia duten interesak ordezkatzeko dituen elkarrekin delako, eta bertako kideen interes kolektiboak defendatzen dituelako.

BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduketa.

2022ko martxoaren 29ko erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak onartu zuen Gipuzkoa Turismoa HUBaren bidez Gipuzkoako helmuga

PRIMERO.- Objeto.

El recurso se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 1.149.864,95 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 44 LCSP.

SEGUNDO.- Competencia.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

TERCERO.- Plazo.

El recurso ha sido interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación se publicó en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi el día 6 de abril.

CUARTO.- Legitimación.

La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.

QUINTO.- La actuación recurrida.

Mediante acuerdo de 29 de marzo de 2022 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación de los servicios de gestión y



turistikoa kudeatu eta dinamizatzeko zerbitzuak kontratatzeko espedientea (A05/22-SE/T espedientea), bai eta administrazio klausula partikularren agiria (AKPA) eta preskripzio teknikoen agiria (PTA) ere.

Administrazio klausula partikularren agiriko ezaugarrien taulako 15. atalak ezartzen du lizitatuzaileek kontratua gauzatzeko honako giza baliabide hauek jartzeko konpromisoa hartuko dutela:

- Lizentziadun edo graduatu bat, gutxienez lau urteko esperientzia duena turismo helmugan sustapenarekin eta kudeaketarekin lotutako zeregin baliokideetan, HUBeko zuzendaritza lanposturako.

- Lizentziadun edo graduatu bat, marketineko eta komunikazioko arduradun lanposturako.

- Administrari lanposturako pertsona bat.

Era berean, preskripzio teknikoen agiriak eskatzen du Gipuzkoa Turismoa HUBeko zuzendaritzako arduradunak eta marketineko eta komunikazioko arduradunak graduako unibertsitate-titulua edo baliokidea izatea.

Agiri horien aurrean, AGISAS elkarteak kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen, non eskatzen baitzuen, batetik, HUBeko zuzendaritza lanposturako eta marketineko eta komunikazioko arduradun lanposturako eskatzen den unibertsitate titulazioaren betekizuna baliogabetzeko eta, bestetik, lanpostu horiek betetzeko animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi mailako teknikari tituludunen kaudimen teknikoa eta profesionala aitortzeko.

SEIGARRENA.- Errekurtsoaren xedea desagertzea.

Departamentuak errekurtsoari buruz emandako txostenak adierazten duenez, lanpostu horien eginkizunak PTAn ondo zehaztuta badaude ere, ez dago behar bezala justifikatuta horiek betetzeko

dinamización del destino turístico de Gipuzkoa a través del HUB Gipuzkoa Turismoa (expediente A05/22-SE/T), así como el pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y el de prescripciones técnicas (PPT).

El apartado 15 del cuadro de características del PCAP establece que los licitadores se comprometerán a adscribir a la ejecución del contrato los siguientes medios humanos:

-Una persona licenciada o graduada con una experiencia mínima de cuatro años en tareas equivalentes relacionadas con la promoción y la gestión de destinos turísticos, para el puesto de Dirección del HUB.

-Una persona licenciada o graduada para el puesto de Responsable de marketing y comunicación.

-Una persona para el puesto de Administrativo/a.

Del mismo modo, el PPT exige que la persona responsable de la Dirección del HUB Gipuzkoa Turismoa y la persona responsable de marketing y comunicación estén en posesión de título universitario de grado o equivalente.

Frente a estos pliegos AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación en solicitud de que se anule el requisito de titulación universitaria exigido para los puestos de Dirección del HUB y de Responsable de marketing y comunicación, y se reconozca la solvencia técnica y profesional de los titulados/as de Técnico Superior en Animación Sociocultural y Turística para desempeñarlos.

SEXTO.- Desaparición del objeto del recurso.

El informe emitido por el departamento acerca del recurso señala que, si bien las funciones de esos puestos se encuentran bien detalladas en el PPT, no está suficientemente justificada la exigencia de

unibertsitateko lizentziatura edo gradua behar izatea, eta, beraz, adjudikazio prozeduran atzera egiteko asmoa aurreratzen du.

SPKLren 152.4 artikuluan xedatutakoaren babesean, Diputatuen Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 24ko bilkuran, erabaki du kontratu hau adjudikatzeko prozeduran atzera egitea aipatutako txostenean adierazitako arrazoiengatik, eta erabakia Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Kontratazio organoak adjudikazio prozeduran atzera egiteak errekurtso hau amaitzea dakar, xedea desagertu denez (2015ko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, 84.2 artikulua), eta horrela erabakitzen da.

Ondorioz, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administrazioak

E R A B A K I T Z E N D U

Amaitutzat ematea, xedea desagertu denez, AGISAS - GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILE ETA ANIMATZAILE SOZIO KULTURALEN ELKARTEAK ezarritako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Donostia, 2022ko ekainaren 3a.

titulación universitaria de licenciatura o grado para desempeñarlas, por lo que adelanta la intención de desistir del procedimiento de adjudicación.

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 152.4 LCSP, el Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 24 de mayo de 2022, ha acordado desistir del procedimiento de adjudicación de este contrato por las razones expresadas en el citado informe, y publicar el acuerdo en el Diario Oficial de la Unión Europea y en el perfil de contratante.

El desistimiento del procedimiento de adjudicación por parte del órgano de contratación produce la terminación del presente recurso por desaparición sobrevenida de su objeto (artículo 84.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas), y así debemos declararlo.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

A C U E R D A

Declarar terminado, por desaparición sobrevenida de su objeto, el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS).

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

San Sebastián, 3 de junio de 2022.